



Ibilbidea

Bizkaia **ibiltasunaz**



10. Ibilbidea

Forua > Busturia



Fitxa teknikoa

- **Forua-Murueta-Busturia-Sukarrieta-Busturia**
- **Bizikleta Plan Nagusiko Urdaibai ardatza**
- **Ibilbidea:** 14 km
- **Gutxi gorabeherako denbora, geldialdiekin:** bi ordu
- **Zailtasuna:** ertaina
- **Zirkulazioa:** urria
- **Gomendatutako bizikleta mota:** hibridoa edo mendikoa

Bizkaia bizikletaz

Azken urteotan, Bizkaian hainbat urrats egin ditugu Bizikleta sustatzeko eta garraio bide gisa erabiltzeko bidean. Ibilbide hauek aukera paregabea dira autoa etxean uzteko eta bizikletaz lasai eta presarik gabe gozatzeko. Ibilbide seguruarik eta pertsona guztiarentzat egokiak dira.

Bizikletaz ibiltzea dibertigarria, osasungarria eta ekologikoa da. Noizean behin kirol egiteko baina askoz gehiagorako balio du. Ikastetxera edo lantokira joateko erabil dezakezu, erosketak egiteko, lagunekin gelditzeko edo, besterik gabe, zure hirian edo herrian paseatzeko edo txangoak egiteko. Bizikletak **ABANTAILA** ugari ditu:

- **Osasungarria** da, sasoi onean egoteko ezin egokiagoa, eta estresaren eta agresibitatearen kontrako antidoto bikaina.
- Garraio biderik **merkeena** da.
- Independentzia handia ematen digu eta hirian **azkarra da**. 7,5 km-tik beherako distantzietan autoak baino lasterragoa da.
- Baina, batez ere, beharrezkoa da, planetaren hondamena geldiarazteko **beharrezkoa**. Nazio Batuen txosten baten arabera, 50 urtean planetako tenperatura 1,4 eta 5,8 °C bitartean igoko da, atmosferara isuritako gasen ondorioz. Horrek mutur-muturreko klimak ekarriko ditu, uholdeak, tornadoak, gaur egungo aberastasun biologikoaren %25aren galera... Baina, zer gerta daitekeen pentsatzen hasi baino, hobe dugu arazoa konpontzen saiatu. Egia esan, dena ez dago gure esku, baina zure ekarpena funtsezkoa da planeta salbatzeko. Erabili bizikleta eta utzi autoa!!!

Bizikletaz ibiltzea, berez, ez da arrisksua. Autoek sortzen dute arriskua. Hona hemen, bada, autoetatik babesteko **AHOLKU** batzuk:

- Abiatu baino lehen bidea aztertu eta ibilbiderik arriskutsuenak baztertu.
- Kale edo bide estuetatik bazoaz eta autoek zu aurreratzean 1,5 metroko segurtasun-tartea uzteko lekurik ez badago, bidearen erditik joan. Ez ibili aparkatuta dauden ibilgailuetatik hurbil.
- Bizikleta egoera onean eduki beti. Aldiro aztertu balaztak, gurpil-azalak, direkzioa eta argiak.
- Gauez, argiak eta islagailuak erabili. Ez jantzi arropa ilunik.
- Zirkulazio-kodea errespetatu. Ezkerretara edo eskuinetara biratu behar baduzu, alde zurretik adierazi maniobra. Kaskoa nahitaezkoa da herriz kanpoko bideetan; dena dela, ez da beharrezkoa aldapa gora luzeetan eta bero handi-handia egiten duenean.
- Zure erreian eskuinetara jotzeko aukera badago, kontuz ibili. Askotan, arrisku-egoerak sortzen dira.
- Biribilguneetan beste ibilgailu guztiak bezalaxe jokatu eta, lehen irteera hartu behar ez baduzu, erdiko erreietatik jarraitu.
- Ez erabili musika-entzungailurik.



Nola heldu

Inolako zalantzarik gabe, trena da gure bizikletarekin ibilbidea hasten den lekura heltzeko garraioberdikeri onena. Bestek beste, EuskoTrenak Foruarekin lotzen ditu Bilbo (Atxuri eta Bolueta), Zornotza, Gernika eta Bermeo. Ibilbidea Foruko tren-geltokian hasten da.



0 km: Forua

Ibilbidea ez da nekagarria, leun samarra baita. Hala ere, geltokitik irtetean plato txikia eta pinoi handia erabili beharko ditugu. Hasierako aldapa labur baina gogor hori igotakoan, errepide batera iritsiko gara. Ezkerretara joko dugu eta, zenbait metro aurrerago, erromatarren garaiko herrixka baten hondakin interesgarriak aurkituko ditugu. Leku horretan erromatarren aurreko biztanleen aztarnak aurkitu dira, K.a. 6. mendekoak, baina herrixka I. mendekoa da. Garai hartan, Kantabriar Gerrak bukatutakoan, erromatarrek Hispania konkistatu zuten, eta Klaudio eta Neron gobernadoreek bere balio estrategikoagatik aukeratu zuten kokaleku hori, itsasadarretik hurbil baitzegoen.

Gure jakin-min arkeologikoa aserik, aurrera jarraituko dugu. Txangoaren hasieran iraganerako bidaia egin dugu, eta orain gaur egungo garaira itzuliko gara, Urdaibaiko Biosfera Erreserba osatzen duten 22 udalerrietako 4 ezagutzeko. Goi Paleolitoan zenbait herri leku hori aukeratu zuten bizitzeko, eta 1984ko abenduaren 8an UNESCOren MAB egitasmo Nazioarteko Koordinazio Batzordeak Urdaibai Biosfera Erreserben Nazioarteko Sarean sartzea erabaki zuen. Bi gertaera garrantzitsu horiek ez ziren kasualitate hutsa izan, eta zerk eragin zituen jakingo dugu txango honetan.

Atzera egingo dugu etorri garen bidetik, errepidean gora, Forua herriaren erdigunerantz. San Martin elizaren ondotik pasatuko gara. Kronikek diotenez, inguru horretako jaunek meza entzutera herri urrunetara joan beharrik ez izateko eraiki zen. Errepidea Foruko udaletxearen ondotik igarotzen da, eta BI-2235 foru-errepideraino eramango gaitu (eskualdeko errepide nagusia da). Errepide horretan eskuinetara joango gara, kontu handiz eta ibilgailu motordunei adi. Zorionez, metro batzuk aurrerago bidegorria aurkituko dugu. Txirridularientzako bide babestuko asfalto gorrian gaudenean, abiadura moteldu eta lasai-lasai ibiliko gara, paisaiatz gozatzuz.

2 km: Murueta

Bizikletan lasai-lasai goazela, konturatu orduko Muruetan sartuko gara. 250 biztanle inguruko udalerririk txikia da. Jendea baserrietan sakabanatuta edo landa-izaerari eutsi dioten auzo txikietan bizi da. Gure ezkerretan, kareharrizko tontorren gainean, Forutik horaino bidearen ertzean hedatzen den artadi kantauriarra ikusiko dugu. Kolore berde ilunak eta forma biribilak argi bereizten dituzte arteak inguruan landatutako pinuetatik. Babestuta dago eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbako ekosistemarik baliotsuenetako bat da. Basoko arte, gurbeltz, txorbeltz, ereintz eta endalarren artean basakatuak, katajinetak, azkonarrak, urubiak, hegoaldeko suge leunak eta musker berdeak bizi dira, gure faunako beste animalia askorekin batera.



Tarte batez, bidegorria eten egiten da. Zirkulazio urriko errepede txiki batetik joango gara, landazabalean barrena. Aurrerago, bidegorria hartuko dugu berriro, errepedearen ondoan. Muruetan egingo dugun sartu-irten labor horrek belardiak ikusteko aukera emango digu. Ez dira oso ikusgarriak, baina udaberrian, abereek belarrari hazten uzten diotenean, kolorez janzten dira eta beren edertasun guztia erakusten dute. Belardietako animalia eta landare ugarien artean, orkideo-espezie batzuk ere hazten dira. Kiwi-sail txikiak ere ikusiko ditugu hor-hemen. Jatorriz Txinakoa den fruta horrek hazteko baldintza egokiak aurkitu ditu Kantauri itsasoaren ertzean. Errepedearen ondotik jarraituko dugu, eta kilometro bat aurrerago Busturian sartuko gara.

4,5 km: Busturia

Bidegorria hor bukatzen da, baina, errepedetik metro batzuk egin ondoren, bide lasai batera helduko gara. Bizkor jaitziko dugu aldapa, aurreratzen gaituzten ibilgailu motordunen kopurua ahalik eta txikiena izan dadin. Txirindulari trebeak ez bagara edo taldean haurrak badaude, komeni da bizikletatik jaistea eta zati hori espaloitik egitea. Behera iristen garenean, Mape errekatxo zeharkatu bezain laster, eskuinaldean hasten den errepedea hartuko dugu. Paduraren erdiraino eramango gaitu, errekatxoaren ertzetik. Busturiako tren-geltokira heltzen garenean (San Kristobal auzoan dago), trenbidea zeharkatu eta ezkerretara doan bidezidor batetik jarraituko dugu, hareak uzten digun neurrian. Itsasadarra askotan dragatu dute, gorago dagoen Muruetako ontziolan egindako itsasontziak itsasoraino eraman ahal izateko, eta hor aurkituko dugun harea dragatze-lan horien ondorioz pilatu da. Bidea bitan banatzen den tokian ezkerrekoa hartuko dugu, itsasadarraren ertzean dagoen hegazti-behatokiraino. Bertako gazitasunera oso ondo moldatu diren tarai izeneko zuhaixken artean erdi ezkutaturik dago.

Hor, komeni da astiro ibiltzea eta behatokia zaratarik egin gabe sartzea. Zortea badugu –hau da, behatokiaz beste aldean paseatzen ari den edo, debekatuta dagoen arren, txakurra lotu barik daraman jenderik ez badabil-padura bisitatu ohi duten hegazti-takto batzuk ikusiko ditugu: ubarroiak, kaoiak, txirriak, kuliskak, bernagorriak, txirritxoak, lertxunak, lertxuntxoak eta, zorte apur batekin, mokoabal edo arrano arrantzaleren bat. Hiru baldintza bete behar dira hegaztiak ikusi ahal izateko: urte-sasoi egokia aukeratzeko, pazientziak itxaroteko eta zorte apur bat izatea. Nolanahi ere, paisaia zoragarria da berez.

Hegaztiak ikusi ondoren edo itxaroteaz aspertzeko garenean, aurrera jarraituko dugu. Komeni da prisarik gabe ibiltzea, ingurunea aztertzen eta bertako landarediaz eta faunaz gozatzen. Itsasadarrean gora doan bide erdi ezabatu batetik joango gara. Eskuinetara laurogeita hamar graduko biraketa egin ostean, lehen igaro dugun bidegurutzera eramango gaitu, trenbidetik hurbil. Etorri garen bidetik itzuli, trenbidea berriro zeharkatu eta, Busturiaraino ekarri gaituen errepedera heldu baino lehen, gure eskuinaldean Zelaiondo zahar-etxearen ondotik gora doan bide asfaltatu hartuko dugu. Antzinako Errege Bidea da, Bilbo eta Bermeo lotzen zituen zin-bidea, garai batean jende askok zapaldua. Aldapan gora goazela, artadi kantauriarra ikusiko dugu ezkerrean, eta paduraren ikuspegi zoragarriak beste aldean, Madariaga dorrera iritsi arte. Eraikin paregabea da, historia luzekoa eta orain dela gutxi zaharberritua. Merezi du bisitatzeko eta handik ikusten den paisaiaz gozatzea. Gaur egun, Euskadiko Biodibertsitatearen Interpretazio Zentroaren egoitza da.





Horraio eraman gaituen bidera itzuli, eta aurrera egingo dugu, lehengo norabide berean. Biribilgune batera heldu baino lehen, pista asfaltatu bat hartuko dugu, lehengoa baino estuagoa. Gure eskuinaldean hasten da, zaharberrietako parral baten ondoan. Eskualde honetan txakolingintza oso hedatuta dago, eta parralak ikusiko ditugu hor-hemen. Mahastiak haztean landareari eusteko eta goitik gidatzeko egiturak dira. Geldialditxo bat egingo dugu, interpretazio-panela irakurtzeko. Bideak bidegurutze bateraino eramango gaitu. Zuzen jarraituko dugu, autoei igarobidea eragozten dieten piboten artean. Hor, beheranzko aldapa arriskutsua hasten da, eta komeni da berriz ere bizikletatik jaistea. Aldaparen beheko aldean Axpe auzoko errepide batera eramango gaituen bide bat hasten da. Errepidean eskuinetara

joko dugu eta, berehalaxe, eraikin artean ezkerretara doan beste errepide bat hartuko dugu. Zuzen jarraitu, trenbidea kontuz zeharkatu, eta asfaltatutako estrata txiki batetik jarraituko dugu. Zirkulazio urrikoa da, inguru horretan bizi direnek soilik erabiltzen dutelako, baina baliteke aurrez ibilgailuren bat etortzea.

Apurka-apurka, Urdaibaiko landazabalean sartuko gara berriro. Inguruko larre berdeetan belar-balak ikusiko ditugu nonahi, plastiko beltzean bilduta, abereek jango duten belarra ontzeko. Bidegurutze batera helduko gara. Zuzen jarraitzea debekatuta dagoenez, ezkerretara joko dugu. Trenbidea zeharkatuko dugu berriro, gaineko pasabide batetik oraingoan. Hurrengo bidegurutzean eskuinetara jiratuko dugu. Laster, itsasadarra ikusiko dugu, bere zabaltasun osoan. Ibaiko ur geza eta Kantauri itsasoko ur gazia besarkada estuan elkartzen dira hor, Izaro uhartearen eta Atxarreko San Pedroren begirada ernearen pean.

12 km: Sukarrieta

Aisialdirako eremu txiki bat ikusiko dugu gure ezkerrean. Haren ondoan dagoen bidegurutzean eskuinetara joko dugu, padurara hurbiltzeko. Sukarrietako udaleku ezagunen eraikina inguratu eta izen bereko udalerrian sartuko gara. Bideak itsasertzeko hareatza eder batera eramango gaitu: San Antonio hondartzara. Aldamenean isil-isilik altxatzen den baseliza xumetik hartu du izen hori hondartzak. Leku paregabea da bizikleta lotzeko eta oinez ibilalditxo bat egiteko. Bainu bat ere har dezakegu, aurrean Sandindere daukagula. Kareharrizko uharte txiki bat da, artez estalia.

Nahi dugunean, bizikletara igo eta trenerantz abiatuko gara. Azken bidegurutzetik hurbil Busturia-Itxasbegiko geltokia dago, baina hara heltzeko debekatutako norabidean joan beharko genuke (oinetz egin dezakegu zati hori). Beraz, hondartzaraino ekarri gaituen errepidetik jarraituko dugu eta, aldapa labur bat igo ondoren, landazabalean barrena genbiltzanean igaro ditugun bidegurutzeetako batera helduko gara. Zuzen jarraitu, berriro ere trenbidea zeharkatu (Axpe auzoan), eta beste bidegurutze ezagun batera helduko gara. Oraingoan ezkerretara jiratuko dugu, Busturia-Axpeko geltokirantz. Ibilbidea hor bukatzen da, baina, Urdaibaiko altxorrez gozaten jarraitzeko gogo badugu, geltokiaren eskuinaldean paduraren ondoan dagoen bidezidor estu batetik joango gara. Ezin da bizikletaz ibili, baina itsasadarraren ikuspegi zoragarria dago. Isilik mugitzen bagara (natur eremuetan komenigarria da beti hala ibiltzea), baliteke animalia baten ikustea, hegaziak batez ere. Zorte ona izan!





Leku interesgarriak

Urdaibaiko Biosfera Erreserba gure lurraldeko lekurik pribilegiatuenetako bat da, biodibertsitaterik eta paisaia-aniztasunik handiena duena ziur aski. Itsasoak, itsaslabarrek eta hondartzek, basoek eta ibarrek, bertako biztanleek eta haien bizimoduak sistema bizi-bizia osatzen dute, naturaren, kulturaren, tradizioaren eta garapenaren arteko oreka bilatzen duen sistema oparoa. Ondare paregabe hori babesteko eta ordenatzeko, 1984an UNESCOk Biosfera Erreserba izendatu zuen Urdaibai, eta bost urte geroago Eusko Legebiltzarrak 5/1989 Legea onartu zuen. Halaber, Mundaka-Gernikako itsasadarra (erreserbaren motorra) RAMSAR Hitzarmeneko nazioarteko garrantzia duten hezeguneen zerrendan dago. Erreserba hegaztientzako babes bereziko eremua da eta NATURA 2000 Europako naturgune babestuen sarean dago. Biosfera Erreserbak 220 km² hartzen ditu, Bizkaiko Lurralde Historikoko eremuaren ehuneko hamar.

Antzina Urdaibain bizi izan ziren herriek ez zuten nazioarteko erakundeen izendapen berezirik behar izan inguru horren bikaintasunaz ohartzeko, eta Goi Paleolitoan (K.a. 35.000-18.000) Kortezubiko Santimamiñe kobazuloa aukeratu zuten bizileku. Garai hartako aztarnak oso urriak dira, baina K.o. I. mendetik aurrera orduko bizimodua ulertzen lagundu diguten azterna ugari utzi zituen gizakiak. **Foruko erromatar herrixkan** gizakien biziguneak eta burdina eraldatzeko eta metal horrekin objektuak egiteko metalurgia-tailerrak aurkitu dira, handik hurbil itsasadarrean zegoen portuaren inguruan antolatuta. Kokaleku horrek merkataritza eta kultur harremanak erraztu zituen, komunitate erromanizatuen eta bertako komunitate indigenen artean hasieran (garai hartan Gernikako Kosnoaga eta Nabarnizko Arrola kastroetan kokatuta zeuden), eta Penintsulako barrualdearekin, Kantauri itsasoaren kostaldeko gainerako herrieekin eta Akitaniako kostaldearekin gero. Jarduera handi horrengatik deitu zitzaion Forua lekuari. Izen hori latinezko *forum* (merkatua edo plaza publikoa) hitzetik dator.



Erromatarren garaiko herrixkaren hondakinetatik hurbil **Foruko San Martin eliza** dago. Apaingarririk gabeko eliza xumea da, iraganaren lekuko isila. Historian zehar, askotan birmoldatu dute. XI. mendearen amaieran edo XII. mendearen hasieran eraiki zuten, baina, aurkitutako zenbait aztarnaren arabera, eliza eraiki aurretik tenplu prerromaniko bat egon zen bertan. Orain dela gutxi, nekropoli bat aurkitu dute eliza barruan, Bizkaiko garrantzitsuena. Nekropoli horren hondakin zaharrenak erromatarren garaioak dira. Ehun hilobi inguru aurkitu dira, 200 eta 1.600 urte bitarteko antzinasuna dutenak.

Agian, hor lurperatu zituzten pertsonetako batzuk **Madariaga dorrean** bizi izan ziren. Leinuen arteko gerren garaian eskualde horretan eraikitako dorrerik ospetsuenetako bat da. XV.

mendearen eraiki zuten, defentsarako ziur aski. Urteak igaro ahala, bizitzeko eremuak handitu egin ziren. Inguruan bost hektarea hartzen dituen lursailaren nekazaritza-ustiapenez arduratzen ziren familiak dorretxean bizi ziren. Erlojuaren eraikina 1851koa da, estilo neoklasikokoa eta itsasargien arkitekturan inspiratua. San Bartolomeko bizilagun batek eraiki zuen, Busturia herriari dohaintzan emateko. Madariaga dorrea duela gutxi zaharberritu dute, eta gaur egun Euskadiko Biodibertsitatearen Zentroaren egoitza da.

Dorrea leku geostrategiko batean kokatuta dagoenez, Gernika-Mundakako itsasadarraren estuario osoa ikus dezakegu handik. Estuarioa oso malda leuneko eremua da (0,2 m/km) eta 13 km inguru ditu. Marearen eraginpean, Oka ibaiako eta haren ibaiadarretako ur geza Kantauri itsasoko ur gaziarekin elkartzen da, eta ekosistemarik aberatsenetako eta emankorrenetako bat sortzen da: padura. Horrelako hezeguneak lugorritzat hartu izan dira, nekazaritzarako edo abeltzaintzarako erabiltzen ez zirelako eta, agian, horrelako lekuek gordetzen duten natur altxorra balioesten ez zelako. Horregatik, desagerrarazteko ahalegin handiak egin dira, kanal, dike edo polderren bidez. Hala ere, **Urdaibaiko padura**—Euskal Herriko kostaldean kontserbazio egoerarik onenean dagoena— natur aberastasun handiko lekua da. Animaliarik ugariak orngabeak dira (moluskuak, bibalbioak, krustazeoak eta anelidoak). Lokatzean biltzen diren elikagaiek erakarrita bertaraten dira, eta beraiek espezie askotako hegaztiak erakartzen dituzte. Mokoia eta hankak espezializaturik eta zeregin horretarako ezin hobeto moldaturik dauzkaten hegazti horiek lokatza arakutzen dute etengabe, janari bila.



Bazenekien...?

Urdaibaiko bisitari hegodunik enblematikoena mokoabala da (*Platalea leucorodia*). Oso hedatuta dago eskualde palearktikoan, baina populazioa gainbehera doa eta oso sakabanatuta dago. Kaltebera gisa katalogatuta dago Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan. Urdaibai bisitatzen duten mokoabala gehienak Holandako ugaltze-kolonietatik iristen dira. Negua igarotzeko Senegal ibaiaren deltarantz eta Mauritaniako Banc d'Arguin-go Parke Nazionalerantz egiten duten migrazio-bidaia luzean Urdaibai oso leku egokia da atseden hartzeko eta gantz-erreserba berritzeko. 4.000 km-tik gorako bidaia horretan ondo merezia dute atsedenalditxo bat!



Informazio interesgarria

• Forua

☎ Udala: 94-625.51.16

• Murueta

☎ Udala: 94-625.24.51

• Sukarrieta

☎ Udala: 94-687.07.15

• Busturia

☎ Udala: 94-687.00.50

www.busturia.org

• Turismo-bulegoak:

☎ Gernika-Lumo: 94-625.58.92

☎ Mundaka: 94-617.72.01

• Informazioa:

www.euskadi.net/urdaibai

www.busturialdeaurdaibai.com

www.urdaibai.org

BIZKAIA



Larraldiak 112

Bizkaiko Foru Aldundia

Herri Lan Saila

Tel.: 94-406.70.00

www.bizkaia.net/herri_lanak/Bizikletak/eu_index.html



ELKARTEAK

- Biziz Bizi. Hiri Txirindularien elkartea

Tel.: 667.462.123

www.bizizbizi.org

- ConBici. Bizikletaren aldeko koordinakundea

www.conbici.org

- Bizkaiko Txirindularitza Federazioa

Tel.: 94-441.50.49

www.febici.com

- Euskadi Txirindularitza Iraskundea (Gela pedagogikoa)

Tel.: 94-454.51.27

www.fundacioneuskadi.com



BIZIKLETAREKIN BIDAIATZEKO GARRAIO PUBLIKOAK

- BizkaiBus (maletategia daukaten autobusetan bakarrik, eta zorro batean sartuta)

Tel.: 902-222.265

www.bizkaia.net

- Renferen aldiriko trenak

Tel.: 902-240.202

www.renfe.es/cercanias

- Bizkaiko Garraio Partzuergoa

Tel.: 94-476.61.50

www.contrabi.com

- Erandio-Barakaldo txalupa

Tel.: 94-467.00.35

- Portugalete-Areeta txalupa

Tel.: 94-496.47.03

- EuskoTren, EuskoTran

eta Larrainetako funikularra

Tel.: 902-543.210

www.euskotren.es

- FEVE

Tel.: 94-425.06.15

www.feve.es

- Artxandako funikularra

Tel.: 94-445.49.66

www.bilbao.net/funicularArtxanda/jsp/home.jsp

- Metro Bilbao


Tel.: 94-425.40.25

www.metrobilbao.net

- Bizkaiko Zubia

Tel.: 94-480.10.12

www.puente-colgante.com



Busturia

Forua

Km 2

Km 4,5

Km 0

Foruko erromatar herrixka

Foruko San Martin eliza

Murueta

San Kristobal auzoa

Madariaga dorrea

Parrala

Sukarrieta

Sandindere Uhartea

Hegaztien behatokia

Gernika-Mundakako itsasadarra

Mapa errekaxoa

BI-2235

BI-2235

Gernika-Mundakako itsasadarra